

HERRIKO gertakariak

LORE UNANUE AZPIAZU

Imanol Larretxeak kontatutako gertakarien pasarteak dira, orri hauetan irakurriko dituzuenak. Benetan gertatutakoak guztiak eta hainbat kasutan oso xelebreak.



Joxe Antonio Zubeldia, "Con Yo"

TRANBIA HERNANIKO Plaza Berrira iristen zeneko gertakaria da.

Garai hartan, Hernaniko ume asko eta asko kanikatan jolasten aritzen zen Plaza Berrin eta egun hartan, Donostiatik zetorren tranbia iritsi eta bi turista jeitxi ziren. Umeei hurbildu zitzaizkien eta esan:

– "Niños, ¿Dónde está el Hotel Terraza?"

Umeek, euskaraz besterik ez zekiten eta batak besteari esan zion:

– "Hi guazemak Udalera, han egongo dituk aguazilak-eta". Korrika abiatu ziren eta han ikusi zuten Joxe Antonio Zubeldia aguazila (garai hartan hiru ziren Hernaniko aguazilak; Jose Antonio Zubeldia, Alzelai eta Madaleno).

– "Joxe Antonio! Joxe Antonio!" –umeak.

– "Zer gertatzen da?" –esaten die Joxe Antoniok.

– "Kanpotar batzuk etorri dira eta ez dakigu zer esaten duten, ea zuk ulertzen duzun zer dioten."

– "Lasai, banoa, baina, non daude?"

– "Plaza Berrin" –erantzuten diote umeek

– "Oraintxe noa."

Abiatzen dira umeak eta aguazila eta

hantxe zeuden bi turistak Plaza Berrin beren maletekin zain. Hurbiltzen zaie Joxe Antonio Zubeldia eta esaten die:

– "Buenos Días."

– "Buenos Días Señor" –turistak-

– "¿Quisiéramos que nos indicara dónde está el Hotel Terraza?"

– "Hotel Terraza... si... venir "con yo," venir con yo"...

Baten batek entzun eta orduezkeroztik "CON YO" deitu zioten Joxe Antonio Zubeldia aguazila izan zenari.

HOTEL TERRAZA, Gudarien enparantzan zegoen. Gutxi gora-behera 1920. urterarte iraun zuen Hotelak, hotel modura. Etxea berriz, Udaletxe ondoan zegoen orubea zen, bota duten azken etxea, zehatz- mehatz esateko.

Urte haietan, kanpotar asko etortzen zen Hernanira oporretara. Donostia oso gertu zegoen eta tranbia izaten zen gure herrira kanpotarrak hurbiltzeko modua. Hotel Terrazan biltzen ziren turista gehienak. ♦



Don Doroteo Irigoyen eta Hernani Futbol Taldea

DON DOROTEO Irigoyen, Hernaniko medikuak futbola ikusteko afizio handia zuen eta Hernani futbol taldeak jokatzen zuen aldiro, Txantxillara joaten zen futbola ikustera. Tribunan egoten zen partidua ikusten eta jokalariren batek min hartzen zuenean zelaira jeisten zen sendatzera. Bere

borondatez jeisten zen zelaira, hori bai.

Garai haietan, futbolari batek min hartzen zuenean, ez zuten jokalaririk aldatzen. Horrek esan nahi zuen talde txikiagoarekin jokatzen segi behar zutela.

Gauza da, egun hartan Hernanik oso partidu inportatea zuela Legazpiko llintxaren aurka. Zein talde igoko zen, huraxe borroka. Hirugarren mailan zegoen Hernani eta derrigorrezkoa zuen irabaztea, llintxaren aurretik jartzeko.



Partidua gogorra zen eta halako batean, llintxako jokalaria batek min hartu zuen bigarren zatian eta kanpora atera behar izan zuten.

Don Doroteo berehala jeitxi zen Tribunatik jokalaria sendatzera eta delegatuari esan zion:

– “Jokalaria hau, aldageletara sartu behar dugu.” – Bitartean partiduak aurrera segitzen zuen, llintxak jokalaria bat gutxiago zuela.

Halako batean Don Doroteok esaten dio delegatuari:

– “Hau ondo ikusi behar da, nahiko delikatua dela ematen du eta hobe da mutila hemen, aldageletan lasai uztea eta bost minutu barru sartuko da berriro zelaira.”

Hernaniko Delegatua Don Doroteorekin zegoen eta esaten dio:

– “Baina, Don Doroteo, zer dauka jokalaria?” – erabat kezkatuta –

– “Ez du ezertxo ere erantzuten dio Don Doroteok- baina noizik eta behin Hernaniren alde jo behar dut, ezta? Ez dauka ezer ere ez, baina, egon dadila lasai minutu batzuetan, honela llintxak bat gutxiagorekin jokatuko du.”

Hernanik partidu hura irabazi egin zuen.

Gertakari hau pasa zen garaian hauetxek ziren besteak beste, Hernani Futbol Taldeko jokalaria: Pako Ugalde, Perrete, Pablo Benito, “Nunca visto” Cuesta... ♦



Mallutarrak, Juanito eta Manuel

JUANITO ETA MANUEL Olano anaiak haserre zeuden, oso haserre...

Juanitok eguneroko moduan ohean sartzerakoan despertadorea jarri zuen lanera joateko. Zikuñagan lan egiten zuen eta goizeko zazpitan jotzen zuen egunero despertadoreak bere txirrina. Baina, elkar haserre zeuden egun hartan, Juanito oso nekatua zegoenez, ez zuen despertadorearen soinua entzun. Txirrina entzun zuena berriz, Manuel izan zen.

Goizeko zazpiak pasata ziren, txirrinak jo eta jo eta Juanito lo. Eta Manuelek bere artean:

– “Honek lanera joan behar dik eta ez da mugitu ere egiten...”

Bi hiru minutu pasa ziren eta Juanitok lo segitzen zuen eta Manuelek:

– “Ez da esnatzen... nola esnatuko dut, haserre gaude-eta...”

Ohean exeri omen zen Manuel eta ozenki esan zuen:

– “Haizak pareta; Esan iezaioke Juanitori, despertadoreak jo duela.”

Horrelaxe konpondu zuen Manuel Olanok bere kezka eta Juanito jeiki eta lanera joan zen, noski, ezer esan gabe. ♦

